


FEVAS

 **Plena
inclusión**
Euskadi

2025EKO JARDUEREN MEMORIA





Dokumentu honek adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak benetan eta modu eraginkorrean gizarteratzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko 2025ean egindako lana jasotzen du.

Aurreko urteetan bezala, hiru ardatzen inguruan garatutako jarduera nagusiak aurkezten dira: adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eskubideen sustapena eta defentsa, antolamendu-garapena eta parte hartzea ingurunean.

Laguntzaileak:



ÍNDICE

FEVAS Plena inclusión Euskadi garaPág. 4

Zer egin dugu

1

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eskubideen sustapena eta defentsa.....Pág. 7

- Eragin politikoa
- Sentsibilizazio soziala
- Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea eta parte-hartzea

2

Erakunde garapenaPág. 19

- Prestakuntza-ekintzak
- Hobetzeko eredu eta estrategien garapena
- Erakunde elkartuei zuzendutako laguntza

3

Parte hartzea hirugarren sektoreko sareetan...Pág. 27

- Plena inclusión
- AEDIS
- EDEKA
- Sareen Sarea

FEVAS PLENA INCLUSIÓN EUSKADI GARA

Ekimen sozialeko erakundea gara, irabazi asmorik gabea

1980tik, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak sustatzen ditugu. 2014an, FEVAS Plena Inclusión Euskadi gizarte-intereseko erakunde izendatu zuten.

13 erakunde elkartu ditugu, eta adimen- edo garapen-desgaitasunaren arloko Euskadiko erakunderik adierazgarriena gara.

Gure xedea

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak defendatzea eta sustatzea. Hori lortzeko, lankidetzan aritzen gara beste erakunde batzuekin, eta eragin politikoa eta soziala izaten dugu.

Erakunde elkartuak



FEVASen helburu estrategikoak

2024-2026



1 Adimen-edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak modu proaktiboan defendatzea.



2 Euskadin Adimen-edo Garapen-desgaitasunaren berezko nortasuna lortzeko bidean aurrera egitea.



3 Gizarte Zerbitzuak emateko FEVASen eredia defendatzea.



4 Berrikuntza Plana erakundeen premia partekatuen arabera orientatzea, Erabateko Kalitate Ereduaren bidez.



5 Prestakuntza Plana Berrikuntza Planaren diseinuaren arabera bideratzea.



6 Sareetako lanaren eraginkortasuna hobetzea.



7 Barne-funtzionamendua hobetzea.



8 Kudeaketa estrategiko eraginkorraren dinamika txertatzea.



9 Talde profesionalaren kompetentziak eguneratzea.

JUNTA DIRECTIVA

- Jose Antonio Idoeta Madariaga, presidentea (Atzegi)
- Hugo Baroja Fernández, presidenteordea (Gorabide)
- Ander Aurre Urzaa, idazkaria (Gaude)
- Patxi Agirre Arrizabalaga, diruzaina (Gautena)
- Carlos Errasti Murguiondo, batzordekidea (Apdema)
- Mikel Pulgarín Romero, batzordekidea (Apnabi-Autismo Bizkaia)
- José Hilario Castillo Agundez, batzordekidea (Aspace Bizkaia)
- Rosa Mª Iglesias Berasategui, batzordekidea (Aspace Gipuzkoa)
- Asier Vitoria Inchausti, batzordekidea (F. Goyeneche de San Sebastián)
- María Segura Luzón, batzordekidea (Futubide)



BATZORDE TEKNIKOAK ETA LANTALDEAK

Erakunde kideetako profesionalek osatuak

Irisgarritasun Kognitiboa, Gaitasun Juridikoaren Babesa, Autogestio taldeentzako laguntza, Eguneko Arreta, Kalitatea, Hezkuntza, Enplegu Publikoa, Familia, Diru-sarreraren Bermea, Aisia eta Etxebizitza.

TALDEA

- Zuzendari-gerentea
- Administrazio-teknikaria
- Komunikazio-teknikaria

Zuzendaritzako
20 bilera

45 bilera
tekniko

HAUEN PARTE GARA

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua
- Gizarteratzeko Euskal Kontseilua
- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal
- Kontseilua-ISEK Boluntariotzaren Euskal
- Kontseilua Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako
- Mahaia Bizkaiko Elkarrizketa Zibilerako
- Mahaia Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia

1. ADIMEN- EDO GARAPEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEN SUSTAPENA ETA DEFENTSA

ERAGIN POLITIKOA

Adimen-desgaitasuna duten pertsonengan eta haien familiengan eragina duten politiken, legeen eta estrategien jarraipena

Hezkuntza

- Parte-hartzea adimen- edo garapen-desgaitasuna duten ikasleen Jarraipen-batzordean.
- Parte-hartzea aniztasunari erantzuteko euskal strategiaren kontrastean.
- Parte-hartzea eta ekarpenak egitea Eskola Bikaina Denontzat-Eskola Segregazioaren aurkako Euskadiko Itunaren Mahaian.
- FEVAS elkarte-sarearen sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen dokumentua, euskal hezkuntza-sisteman

Enplegu Publikoa

- Lankidetzeta EHLABErekin, Eusko Jaurlaritzarekin (Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila eta Segurtasun Saila), Osakidetzarekin eta Gasteizko Udalarekin adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako lan-eskaintza publikoetan:
 - Enplegu publiko inklusiboa bermatzeko eragina.
 - Hautaketa-prozesuen jarraipena.
 - Lantaldeei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen koordinazioa, hautatutako pertsonak euren lanpostuetara sartu aurretik

ERAGIN POLITIKOA

Justizia

- Desgaitasuna duten pertsonak justizia erabili ahal izateko plana hedatzeko prozesuaren jarraipena egitea eta parte hartzea.
- Planeko bi proiektutarako ekarpenak: bideratzaileen programa eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.

Gizarte Politikak

- FEVASek legegintzaldi honetarako dituen lehentasunak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari aurkeztea.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren ebaluazioaren jarraipena eta kontrastea.
- Adineko pertsonen buruzko Euskal Estrategiaren kontrastea.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren sareei buruzko azterlan diagnostikoaren kontrastea (Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia).
- Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren hirugarren sektoreko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdiaren jarraipena eta kontrastea.
- Bizkaiko egoitza-zerbitzuetarako eta eguneko arretarako sarbideari buruzko dekretuaren zirriborroari egindako ekarpenak.
- Mendekotasuna prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko Bizkaiko Itunaren jarraipena.

Osasuna

- Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzako Lehentasuneko Osasun Txartelaren diseinuaren jarraipena eta hura ezartzeko ekarpenak.

Etxebizitza

- Parte hartzea Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroaren Osoko Bilkuran eta lankidetzeta eta finantzaketa publiko-pribatuko eredu berrikuntzari buruzko lantaldean.

Parte hartzea foro instituzionaletan

Irisgarritasun Unibertsalerako Euskal Kontseilua – ISEK

- “Ekitaldi irisgarriak antolatzeko gomendioak” izeneko gidarako ekarpenak.
- “Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-plana” diseinatzeko ekarpenak.

Gizarteratzeko Euskal Kontseilua

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatu beharreko enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektuaren jarraipena.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzen araudia arautzen duen dekretu-proiektuaren jarraipena eta ekarpenak.
- 2023-2024 aldirako Gizarteratzeko Plan Operatiboaren jarraipena eta 2025-2026 aldirako Gizarteratzeko II. Plan Operatiboaren onarpena

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektuaren analisia eta ekarpenak.
- Sexu-indarkerien biktimentzako diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen Dekretu Proiektuaren analisia eta ekarpenak.

Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

- Boluntariotzaren Euskal Estrategian sartutako proiektu bultzatzaileen jarraipena.
- 2025-2028 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren elaborazioa.

Parte hartzea foro instituzionaletan

Elkarrizketa Zibilerako Euskadiko Mahaia

- Parte hartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioan.
- Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Euskadiko Estrategiaren jarraipena.
- Parte hartzea Hirugarren sektoreko sareek elkarrizketa zibilar egiten dioten ekarpenari buruzko hausnarketan.
- Desgaitasunaren Batzordea: Euskadin desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredua garatzeko ekarpenak



Parte hartzea foro instituzionaletan

Elkarrizketa Zibilerako Bizkaiko Mahaia

- Batzorde Iraunkorreko kidea
- Parte hartzea lantaldeetan: Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren finantzaketa erantzukizun publikoko zerbitzuak ematean; eta Bizkaian arreta sozialaren ereduaren pertsonalizazioa (FEVASek koordinatutako taldea)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 2025eko Jarduketa Plana Gizarte Politiken eta Inklusioaren arloan

Elkarrizketa Zibilerako Gipuzkoako Mahaia

- Zaintzen eta Gizarte Politiken 2030 Agenda.
- Gipuzkoako Boluntariotzaren estrategia.
- Gizarte-zerbitzuetako gizarte-ekimeneko erakundeentzako eta gizarte-berrikuntzako proiektuetarako diru-laguntzak.
- Aurrekontuak eta erronka nagusiak.



Argitalpenak



[Neba arreben begirada](#)

[IN aldizkaria](#)

[Doluan ondoan jardutea:
laguntzen duten euskarriak](#)

Bideoak



[Ikusi gure Youtubeko
kanalean](#)

Online komunikazioa



- Webgunea: 8.216 erabiltzaile/11.054 saio
- Audientzia: 8.609
- Bistaratzek: 68.212
- Bideoen bistaratzeak: 3.705

Gizartea sentsibilizatzeke beste ekintza batzuk



Irisgarritasun kognitiboa

Euskadiko Orkestraren "Logelan Logale" proiektuan inplikaturako irakasleei irisgarritasun kognitiboari buruzko prestakuntza ematea
(Donostia, urtarrilak 22)

Lankidetzeta Gertu Kulturarekin, kulturen irisgarritasun kognitiboa sustatzeko

- Parte hartzea "Cultura sin barreras/Oztoporik gabeko kultura" elkarrizketa-mahaian (Bilbo, maiatzak 12).
- Programatzaileei eta kultura-eragileei zuzendutako irisgarritasun kognitiboari buruzko prestakuntza (Bilbo, ekainak 17).

 **Ikusi gehiago**

"Ulertzeko eskubidea: testuak irakurketa errazera egokitzeko gakoak" prestakuntza Portugaleteko elkarteentzat (Portugalete, urriak 14 eta 21). ADAKarekin (Portugaleteko Boluntariotza Sustatzeko Udal Zerbitzua) lankidetzan.

Gizartea sentsibilizatzeko beste ekintza batzuk



“Musika inklusiorako tresna gisa” jardunaldia (Donostia, azaroak 20)

[Ikusi gehiago](#)

“Musika inklusiorako tresna gisa” izeneko FEVASen gida aurkeztu zen, eta Plena inclusiónen 60. urteurreneko kontzertuan oinarritutako “Lo imposible se hará” dokumentala proiektatu zen.

Parte hartzea “Eusko Ikaskuntzako Solasaldietan”

[Ikusi gehiago](#)

Xabier Etxeberria Filosofian doktore eta giza eskubideen arloko erreferenteak, eta Valeria García-Landarte FEVASeko zuzendari-gerenteak, etikari, inklusioari eta bizikidetzari buruzko hausnarketan oinarritutako elkarrizketa izan zuten Eusko Ikaskuntzako solasaldien esparruan.

Lankidetzaren EHLABEekin eta HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin, euskararen ikaskuntza eta horren egiaztapena adimen-desgaitasuna duten pertsonen egokitzeko

ADIMEN- EDO GARAPEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZEA



Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen XVIII. euskal topaketa: “Ai, nire bakardadea! Inklusioa eta parte hartzea nahi ez den bakardadeari aurre egiteko tresna gisa” (Gasteiz, azaroak 8)

[Ikusi gehiago](#)

Adimen-desgaitasuna duten Apdema, Atzegi, Gaude eta Gorabideko pertsonak nahi ez den bakardadeari eta inklusioaren, parte-hartzearen eta hori prebenitzeko laguntza sareen balioari buruzko gogoeta egin zuten.

Parte hartzea Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako “Adiskidetza Digitaleko 2027ko Plana” izenekoan (Bilbo, maiatzak 23 eta ekainak 6)

[Ikusi gehiago](#)

Plan horrek oztupoak identifikatu ditu ingurune digitaletan, eta arrakala digitala murrizteko neurriak zehaztu ditu. FEVASek irisgarritasunari buruzko aholkularitza eman zuen, eta adimen-desgaitasuna, garuneko paralisia eta autismoa duten eta Bizkaiko sei erakundetako kide diren pertsonen parte hartzea koordinatu zuen.

ADIMEN- EDO GARAPEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZEA



Lankidetz Apnabi-Lanekin Lifecomp proiektuaren esparruan (maiatzak 28 eta azaroak 4)

LifeComp-ek autismoa duten pertsonen trebetasun soziopertsonalak indartzea du helburu, enplegarritasuna hobetzeko. FEVASek bi prestakuntza saiotan lagundu zuen, FEVAS zer den eta eskubideen defentsan duen zeregina azaltzeko.

Parte hartzea kultura- eta kirol-jardueretan

[Ikusi geheiago](#)

- **Musikazaleak proiektua**, Euskadiko Orkestrarekin lankidetzan. Musika adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonengana hurbiltzen du, eta haien kulturarako eskubidea sustatzen du. Hiru talde egonkor sortu dira (Bilbo, Donostia eta Gasteiz), eta musika-tailerretan eta azken erakusketa batean hartu dute parte (Bilbo, ekainak 5; Donostia, ekainak 11; eta Gasteiz, ekainak 13)
- **Lankidetz Special Olympics-ekin hainbat kirol-jardueretan:**
 - UEFA Europa League, Jaialdian parte hartzea (Bilbo, maiatzak 20)
 - Bela jarduera Abrako Itsas Errege Klubarekin (Getxo, maiatzak 21 eta irailak 17)
 - Surf-Toyota Espainia jarduera (Sopela, uztailak 17)
 - Special Olympics Meeting Internacional (Castelló, urriak 16-19)

Eskubideen sustapena eta defentsa zenbakitan

31

Eragin politikoko bilera



33

Bilera Elkarrizketa
Zibilerako Kontseilu eta
Mahaiekin



11

Politiketarako ekarpenak eta
horien aplikazioa jasotzen
dituzten 11 dokumentu



ADMINISTRAZIOAREKIN HITZ EGITEN DUGU

GURE MEZUAK GIZARTERA IRITS DAITEZEN LAN EGITEN DUGU

8.609

Audientziasare Sozialetan



163

Parte-hartzaile irisgarritasun
kognitiboko ekintzetan



105

Parte-hartzaile "Musika
inklusionarako tresna gisa"
jardunaldian



99

Parte-hartzaile Desgaitasunen bat
duten pertsonen topaketan



11

Parte-hartzaile Bizkaiko Foru
Aldundiaren Adiskidetasun
digitala proiektuan



95

Parte-hartzaile kultura- eta
kirol- jardueretan



ADIMEN- EDO GARAPEN- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEN DUGU

2. ERAKUNDE GARAPENA

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea euren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko orduan

Egunak: Martxoak 25 eta 31 eta apirilak 7 eta 29 (zati bat online eta beste zatia presentziala Bilbon)

Dinamizatzailea: Marije Goikoetxea (etikan aditua eta Plena inclusióneko Etika Batzordeko kidea).

Parte-hartzaileak: 24 pertsona

Arreta integrala eta pertsonalizatua: berrikuntza adimen-desgaitasuna duten helduen zaintza soziosanitarioan

Egunak: Maiatzak 7, 14 eta 21 (Donostia)

Dinamizatzaileak: Miren Altuna eta Ainara Estanga (CITA-Alzheimer Fundazioko neurologoak)

Parte-hartzaileak: 13 pertsona

Irisgarritasun kognitiboa: inguruneen seinaleztapena eta esperientzia praktikoak

Egunak: Maiatzak 9 eta 16 (online)

Dinamizatzailea: Juanjo Muñoz (Murtziako Eskualdeko Plena inclusióneko Irisgarritasun Kognitiboko Zerbitzuaren arduraduna).

Parte-hartzaileak: 25 pertsona

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen begi- eta entzumen-osasuna

Eguna: Maiatzak 28 (Bilbo)

Dinamizatzaileak: Antonio Carlos García Ruiz, Ernesto Marco Carmena, José Luis Loma Lozano (Abre sus Ojos Elkarteko Optikari-Optometristak) eta Itxaso Herrera (oftalmologoa, Miranza Begoña Klinikako espezialista).

Parte-hartzaileak: 9 pertsona

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Adimen garapenaren nahasmendua duten pertsonen gaixotasun mentala eta jokabidearen alterazioak

Egunak: Ekainak 5, 6 eta 12 (zati bat online eta beste zati bat presentziala Bilbon)
Dinamizatzailea: Susanna Esteba-Castillo (Gironako Martí i Julià Ospitale Parkeko Osasun Laguntzako Institutuko Psikiatria eta Adimen-desgaitasunaren Zerbitzuko neuropsikologoa).
Parte-hartzaileak: 22 pertsona

Irakurketa erraza: teoriatik praktikara

Egunak: Urriak 10 eta 17 (Bilbo)
Dinamizatzailea: Lucía Soria (FEVASeko komunikazio teknikaria)
Parte-hartzaileak: 6 pertsona

Hirugarren Sektorerako Adimen Artifizialeko tresnak

Egunak: Urriak 14, 22 eta 28 (online)
Dinamizatzailea: José Gutiérrez (La Escuelita de ONGko, SHOFUND Marketin Sozial aholkularitzako eta automatizazioen SOLOEMPRENDO agentziako zuzendaria)
Parte-hartzaileak: 25 pertsona

Euskarriak interdependentzia-esparruetan eta benetakotasun-horizonteetan

Eguna: Urriak 21 (Bilbo)
Dinamizatzailea: Xabier Etxeberria (Etikan aditua, Deustuko Unibertsitateko irakasle emeritua)
Parte-hartzaileak: 28 pertsona

Adimen artifiziala erakunde sozialetan dokumentuak kudeatzeko

Egunak: Azaroak 6 eta 13 (online)
Dinamizatzailea: José Gutiérrez (La Escuelita de ONGko, SHOFUND Marketin Sozial aholkularitzako eta SOLOEMPRENDO automatizazioen agentziako zuzendaria)
Parte-hartzaileak: 23 pertsona

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Legezko babesa eta akonpainamendua desgaitasuna duten pertsonen erretiro-prozesuetan

Egunak: Abenduak 12, 13 eta 17 (online)

Dinamizatzailea: Laura Sánchez-Cervera Valdés (Lan Zuzenbidean, Zuzenbide Zibilean eta Desgaitasunaren arloan aditua, "Sánchez-Cervera Asociados" bulegoko bazkidea eta Plena inclusióneko Legelarien Sareko kidea).

Parte-hartzaileak: 16 pertsona

BURUZAGIENTZAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Neba-arreben begirada

Eguna: Abenduak 10 (online)

Dinamizatzailea: Tatiana Urien (Gaude, FEVASeko Familien Batzordea eta Plena inclusióneko Familiei Laguntzeko Sarea) eta Beatriz Vega (Plena inclusión).

Parte-hartzaileak: 14 pertsona



HOBETZEKO EREDUEN ETA ESTRATEGIEN GARAPENA

LANTALDEAK

Gaitasun juridikoa eta justiziarako sarbidea

Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa erabiltzen eta erabakiak hartzen laguntzeari buruzko 8/2021 Legearen hedapenaren jarraipena egitean zentratuta. Besteak beste, justiziara iristeko laguntza-sistemi eta irisgarritasunari buruzko Jurisprudentiaren Behatokiaren Hirugarren Txostenari heldu dio.

Dinamizatzailea: Rafa Armadans (Plena inclusióneko Juristen Sareko kidea)

Parte-hartzaileak: 10 erakunde

Komunikazioa nahieran

Elkarteko kide diren erakundeetan komunikazioa hobetzera bideratua. Edizio honetan, adimen artifiziala komunikazio korporatiboan nola aplikatzen den aztertu du.

Dinamizatzailea: José Gutiérrez (La Escuelita de ONGko, SHOFUND Marketin Sozial aholkularitzako eta SOLOEMPRENDO automatizazioen agentziako zuzendaria)

Parte-hartzaileak: 9 erakunde

Murrizketak murriztea

Praktika murriztaileak murrizten eta ezabatzen lan egiten du, erakundeei eskubideetan oinarritutako ikuspegi integraletik horiek identifikatzen eta murrizten lagunduko dien dokumentu orientagarri bat egiteko.

Dinamizatzailea: Belén Gutiérrez (UNED-PROTEDIS)

Parte-hartzaileak: 5 erakunde



HOBETZEKO EREDUEN ETA ESTRATEGIEN GARAPENA

PILOTATZEAK

“Murrizketarik gabeko” pilotatzea

Praktika murriztaileak murrizteko eta ezabatzeko pilotatzea. 78 praktika murriztaile mota ebaluatzen dituen Plena Inclusiónen tresna librea landu du. Hori aplikatzeak jardunbide horiek murrizteko hobekuntzak identifikatzeko eta lehenesteko aukera ematen die erakundeei. Dinamizatzailea: Belén Gutiérrez (UNED-PROTEDIS) Parte-hartzaileak: 5 erakunde

Familia ardatz duten praktikak ebaluatzeko eta planifikatzeko pilotatzea

Familia ardatz duen ikuspegia bultzatzen du, Plena Inclusiónek prestatutako autoebaluazio tresna baten bidez. Erakundeek euren praktikei buruz hausnartu dute, indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatuz, familia euskarrien erdigunean jartzeko.

Dinamizatzaileak: Maria Villascusa eta Garazi Yurrebaso (Deustuko Unibertsitatea)

Parte-hartzaileak: 6 erakunde

Garapen Komunitariorako pilotatzea: Konektore komunitarioaren figuraren bultzada

Ingurunean loturak, aukerak eta laguntza sareak sortzera bideratutako konektore komunitarioaren figura sustatzen du, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak euren komunitateetan txertatzen laguntzeko.

Dinamizatzaileak: Erika Quesada (Kanarietako Plena inclusión) eta Sofia Reyes (Plena inclusión)

Parte-hartzaileak: 6 erakunde



HOBETZEKO EREDUEN ETA ESTRATEGIEN GARAPENA

BESTE EKIMEN BATZUK

ETIKA

“Doluan ondoan jardutea: laguntzen duten euskarriak” kasu prototipikoa

Profesional talde batek, deliberazio metodoaren bidez, dolu prozesuetan sakondu du. Hausnarketa horren ondorioz, “Doluan ondoan jardutea: laguntzen duten euskarriak” dokumentua egin da.

Koordinazio teknikoa: Marije Goikoetxea, etikan aditua eta Plena inclusióneko Etika Batzordeko kidea.

Parte-hartzaileak: 9 erakunde

“Prebentzioa eta esku-hartzea desgaitasunen bat duten pertsonen laguntzetan tratu desagokia emateko modu sotilenen aurrean” jardunaldia (online, urriak 29)

Esparru ponentzian, Belén Gutierrezek (UNED-PROTEDIS) adimen-degaitasuna duten pertsonen infantilizazioa eta ikusezintasuna jorratu zituen.

Parte-hartzaileak: 71 pertsona.



Parte hartzea desgaitasuna duten pertsoneri buruzko nazioarteko XII. “Gizarte inklusiboa eraikitzen” Ikerketa Jardunaldi Zientifikoetan (Salamanca, martxoaren 12tik 14ra)

INICOk (Salamancako Unibertsitatea) bultzatuta, erakundeek ikerketa eta esperientzia berritzaileak partekatzen dituzten trukerako gunea osatzen dute. Parte-hartzaileak: 21 pertsona.

ERAKUNDE ELKARTUEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA



IMSERSO Oporretako Programa- Plena inclusión

Adimen-edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen aisialdiaz eta atsedendiaz gozatzeko aukera ematen die ingurune irisgarri eta inklusiboetan. Gizartearen parte-hartzea, harreman pertsonalak eta autonomia bultzatzen ditu. FEVASek koordinatzen du erakundeek programan duten parte hartzea.

Parte-hartzaileak: adimen-edo garapen-desgaitasuna duten 140 pertsona, 34 begiralaren laguntzarekin (8 txanda/6 erakunde)

P.I.R. Plena inclusión Konfederazioaren inbertsio-programa, ONCE Fundazioarekin

FEVASek ONCE Fundazioarekin lankidetzan dihardu, Plena inclusiónen bidez, kide diren erakundeei proiektuak formulatzeko eta aurkezteko prozesuan lagunduz, eskatutako irizpideetara egokitzeko.

2025ean, 12 proiektu aurkeztu dira, gehienak zentroak eta zerbitzuak egokitzeko, hobetzeko eta hornitzeko.



11 PRESTAKUNTZA EKINTZA



205 PARTE-HARTZAILE PRESTAKUNTZA-EKINTZETAN



**12 PROIEKTU
KOORDINATU (PIR)**



3 PILOTATZE



3.PARTE-HARTZEA INGURUNEAN

PARTE HARTZEA HIRUGARREN SEKTOREKO SAREETAN



Zuzendaritza Batzordeko eta Gerenteen Taldeko kide gara

- Eragina politika publikoetan (sozialak, justizia, enplegu publikoa, irisgarritasun kognitiboa...)
- Patronalaren hausnarketa
- Jarraipen estrategikoa
- AGD duten pertsonen eta haien familien parte-hartzeari eta lidergoari buruzko “Con Voz Propia” Proiektua.

Participamos en diferentes redes y grupos de trabajo

- Irisgarritasun Sarea
- Familiei Laguntzeko Sarea
- Kalitate Sarea
- Kultura Sarea
- Legelarien Sarea
- Familien UDSak
- Aisialdiko UDSak
- Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien Estatuko Plataforma

PARTE HARTZEA HIRUGARREN SEKTOREKO SAREETAN



PARTE HARTZEA PROIEKTUETAN ETA EKIMENETAN

- “Plena en datos”, informazioaren kudeaketa hobetzeko aplikazioa.
- Ingelesa ikasteko pilotatzea, bai&byrekin lankidetzan.
- Plena inclusióneko erakundeen ezaugarriei buruzko azterlana, jasangarritasunera zuzendua.
- Desgaitasuna duten pertsonen anai-arreben eta koinatu-koinaten hausnarketa belaunaldien arteko erreleboari eta elkarre-bizitzan duten inplikazioari buruz.
- “Con Voz Propia” proiektua. Adimen-edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen, haien familien eta boluntarioen lidergo partekatua indartu nahi du (Madril, apirilak 6, eta Valentzia, urriak 3, 4 eta 5).

PROTOTIPOEN, PILOTATZEEN ETA INDARTZE PROGRAMEN KOORDINAZIOA

- Osasun Mentaleko Ikaskuntza Eskola
- Gurasotasun positiboa-Autoebaluazioa
- Bizitzeko moduak
- Zure eguna ikastetxean
- Antolamendua indartzeko programa

KANPAINAK

- “Ama ere izan gaitezke”
- “Aurreiritzirik gabe entzun, oztoporik gabe babestu”
- “Familiarik gabe ez dago inklusiorik”

PARTE HARTZEA EKITALDIETAN

- Plena Inclusiónen Enplegu Publikoari buruzko Ikerketaren emaitzak aurkezteko topaketa (2025eko ekainak 25)
- Nazioarteko IV. Jardunaldia: Auzi estrategikoa giza eskubideen defentsarako eta justziagarritasunerako tresna gisa (Madril, irailak 25)
- “Prácticas con impacto” topaketa (Sevilla, azaroak 5-7)
- Disability Global Summit (Berlin, martxoak 30 – apirilak 4)
- Plena Inclusión Aragonen 35. urteurrena (Zaragoza, irailak 12 eta 13)



GURE HELBURUAK (HE) PLENA INCLUSIÓNEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ERRONKEKIN LOTZEN DITUGU



Plena inclusiónen 6. Plan Estrategikoa (2025-2030)



Pertsonen indarra
FEVAS- HE: 1




Familia bakoitzak axola du
FEVAS- HE: 1



Gure duintasunak komunitatea behar du. Interdependentziaren etika
FEVAS- HE: 4 -5



Laguntza onekin. Pertsonalizazioaren erronka
FEVAS- HE: 3 -5



Aktibo komunitarioak gara. Zaintzeko irekiak, lankidetzan aritzeko irekiak
FEVAS- HE: 6



Plena inclusión gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde
FEVAS- HE: 4 -5



Desgaitasunaren kontzeptualizazio berriak
FEVAS- HE: 6



Denok gara Denok
FEVAS- HE: 1-3



Erakunde jasangarriak sustatzen ditugu
FEVAS- HE: 3-6-8



Gizartean, politikan eta munduan
FEVAS- HE: 1-2-3-6



Berrikuntzaren eta ikerketaren bultzatzaileak gara
FEVAS- HE: 4



PARTE HARTZEA HIRUGARREN SEKTOREKO SAREETAN



- Eredu patronalari buruzko hausnarketa.
- Erakundeen jasangarritasuna.
- Parte hartzea intzidentzia-foroetan.

- Desgaitasunean eragina duten politika publikoen jarraipena.
- CERMIren (Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordea) ekintzen jarraipena eta parte-hartzea.
- “Adimen Artifizial Inklusiboa: eskubideak eta aukerak desgaitasuna duten pertsonentzat” ikastaroa, Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko Unibertsitatea (Donostia, ekainak 16).
- Berdintasun digitalari buruzko mintegia, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntza buru dela (Leioa, azaroak 5).



- Jarraipena eta eragina eragin sozialeko arauen garapenean eta Hirugarren Sektorean.
- Hirugarren Sektorearen jasangarritasuna.
- Lankidetzaren Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailarekin, zaurgarritasun bereziko egoeran dauden kolektiboaren etxebizitza-beharrei aurre egiteko.
- 2030 Agenda eta GJHak, Euskalitekin.
- Euskadiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen Eguneko Jardunaldia (Gasteiz, maiatzak 6).

Parte-hartzea ingurunean zenbakitan

